

25

abendua 21-28



LAU BOST. —Mikel Laboa, Xoxoa, 1200 pta.

OSKORRIren diska aspalidanik espero bagenuen ere, Mikel Lboaren ere, Mikel Laboaren hurrengo emaitza noiztik ari ginen eskatzen eta itxoiten galdu dugu kontua. eskutan dugu azkenean bi diskaz osatuta, eta topikoak alde batetara uzten badira, zer esanik ekarriko duela ziur gara. Bertan aspaldiko kantak, herri kantak eta kanta esperimentalak jaxotzen dira. Azken hauek egileak «Lekeito» deitutako leneakoak. kanta batzuk zaharrak izan arren eta kantaldiak hamaika aldiz entzutearen poderioz ikasiak izan arren, ongi dago diska batetan jasotzea. Beste kantak banan-banan hartuz gero, justifikaturik daude. Baina egia esan —eta ezin dugu isildu— orokorki desilusio handi samarra hartu dugu diskak entzutean. Ez dakigu grabaketa pesimoarengatik, konponketa eskasengatik ala azken finean gauza berririk ezer gutxi eskaintzuelako. Adarra joka ari dela inpresioak ere ezer gutxi esan nahi du Mikelen kasoan, baina geldi bedi inpresio eta eritzi soil mailandesilusio hitza. Hala ere, ARGIAko orrialdeetara ekarriko dugu Mikel zabalago azken honetaz hitzegin dezan.

DISKAK

PLAZARIK PLAZA. — Oskorri, Xoxoa, 650 pta.

Aspaldi genuen diska hau kaleratuko zela berria eta annuntzioa, eta, grabaketa entzun ondoren bihoakie OSKORRIkoei gure zorionik beroena. Kanta gehienek plazarik plaza jotzeko egindako kantuen kutsua dute, eta horretatik datorkio, dudarik gabe, izena diska osoari. Denetara zortzi kanta dira, eta talde honetan ohitura denez, konponketa oso egokiez horniturik. Lan guztiaren pisua eramanez, hau ere ohitura denez, natxo de Felipe; Aingeru Berguices, Anton Latxa, Jose Manuel Cacho eta Polin Gurreak osatzen dute taldea. Beste lankide batzuk ere badituzte berekin lanean, eta orohar oso atsegin eta gustokoa gertatzen dela esan beharra dago.

ERAKUSKETAK

SAN PELAIO-
INURRITZA-KO ARTE
ESKOLAK antolatutako erakusketa bat izango da zabalik bertako Udaletxean. Bere gaia zeramika eta tapiza izango da, eta honako egunetan izango da har jotzeko aukera: Abenduak 22—Urtarrilak 6 tarte horretan.

KANPAINAK

KARRETARAKO PASTORALTZAREN BAZORDE NAZIONALAK, iadanik gertu ditugun jaiak eta haien inguruan sortzen den trafikoaren aurrean aurten kanpaina bat antolatzeko a eraman du aurrera, nelakoetan izaten den trafikozko biolentzia bereziari nolabait kontra egitearren dei eginaz. Bere lema»... eta karreteran gideriei BAKEA» da eta logikoa denez, Abenduak 15etik Urtarrilak 7ra iraungo du.

ARGIA / 1980 - ABENDUA 2 /